



**Arartekoaren 2020IR-38-19 Ebazpena, 2020ko urtarrilaren 10ekoa. Horren bitartez, erakunde honek egindako ofiziozko jarduketa amaitu da. Hona hemen jarduketa horren xedea: prestazioen titular izateari utzi dioten herritarrei diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria erreklamatzeko prozeduretan Lanbideren ebazpenak jakinarazi beharra.**

### Aurrekariak

1.- Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria erreklamatzeko prozeduretan Lanbideren ebazpenak jakinarazi beharrari buruzko ofiziozko jarduna abiarazi du Arartekoak.

Horren aurretik, hainbat kexa-espeditente jaso zituen erakunde honek. Haien bitartez, zenbait herritarrek defentsa-bulego honi jakinarazi zioten Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren erreklamazioa jaso zutela betearazpen-bidean, bidegabe jasotako prestazio ekonomikoak zirela-eta zorra omen zutelako eta ez omen zutelako hura borondatezko epean ordaindu. Pertsona horiek adierazi zuten ez zekitela zor hori zutenik. Haiek guztiek gauza bat zuten komunean: Lanbiderekiko harremana amaitu ondoren —kasu gehienetan, laneko diru-sarrerak izaten hasi zirela-eta—, etxebizitza aldatu zutela.

Batzuek azaldu zuten ez zetozeela bat zorra zutela jotzea eragin zuten arrazoiekin. Azpimarratu zuten ezin izan zutela beren iritzia argudiatu, ez zitelako jakinarazi ez itzultze-prozeduraren hasiera, ez azken ebazpena, eta, hortaz, zorra izatearekin ere ez zeudela ados, berez.

Arartekoak banaka izapidetu ditu kexa horiek. Era berean, ofiziozko jarduna abiarazi du, eta jardun hori da, hain zuzen ere, ebazpen honen xedea.

2.- Ofiziozko jarduna izapidetzen ari zela, Arartekoak lankidetzak eskatera igorri zion Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, Lanbideren jardunaren inguruko xehetasun gehiago emateko eskatuz, eta alde aurretiko zenbait gogoeta helarazi zizkion —ez errepikatzearen, ondoren jasoko ditugu horiek—.

Zehazki, gai hauei buruzko informazio gehiago eskatu genion sail horri:



- 1) *Lehenik eta behin, Arartekoak jakin nahi du zer prozedurari jarraitzen dion Lanbidek, prestazioak erreklamatzeko prozedura izapidetzen ari dela, jakinarazpenak egiteko.*
- 2) *Bigarrenik, arren, eman iezaguzu zure iritzia egin dugun gogoetaren inguruan; hauxe da gure gogoeta: interesdunei jakinarazi behar zaiela, dirusarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular izan baldin badira, balitekeela epe batean zehar espedientea berrikustea, eta, beraz, helbidea aldatzekotan, horren berri eman behar dutela. Arartekoaren ustez, interesdunari informazio hori ematekotan, idatziz jaso beharko litzateke hala egin dela.*
- 3) *Azkenik, jakinaraz iezaguzu zer emaitza izan duen, erreklamazioprozeduraren jakinarazpenak borondatezko bidetik huts egin duen kasuetan, —erakunde honek dakiela— Lanbidek agindu duen berrikuspenak edo azterketak.*

Kontu horri dagokionez, hauxe erantzun du Lanbideko zuzendari nagusiak:

*“Lehenengoa: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren itzultze-prozeduraren ondoriozko egintzen gaineko jakinarazpenak egiteko prozedurak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 42. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat egiten du.*

*Bigarrena: Prestazioa aldatzeko, eteteko edo azkentzeko ebazpen guztietan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak honako hau jakinarazten dio interesdunari hitzez hitz:*

*‘Honako aldkaketa/etendura/azkentzearen ondorioz Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta modu bidegabean jaso dela egiaztatuko balitz, modu bidegabean jasotako kopuruak itzultzeko dagokion prozedura hasiko litzateke, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta arautzen duen maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 56. artikuluan ezarritakoarekin bat.’*

*Hortaz, aipatu behar da berrikuspen-prozedura baten ondoriozko ebazpen orotan dagokion eranskin ekonomikoaren berri ematen dela, non itzuli daitezkeen kopuruak jasotzen diren.*

*Azaldutakoagatik, hartzailea den edo izan den orok badaki Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin duen harremana ez dela amaitzen prestazioa azkentzeko ebazpena ematen den unean, eta esandakoaren ondorioz,*



*jakinarazpena beste helbide batean jaso nahi badu, erakunde autonomari eman behar dio horren berri.*

*Hala ere, azkentze-ebazpenetan, interesdunei ordaintzeke dagoen zorraren gaineko informazioa ematen zaien atalaren barruan, honako ohartarazpena egiten zaie: 'Era berean, jakinarazten da Lanbideri helbide-aldaketaren berri eman behar dionzula, jakinarazpenak bidali ahal izateko, zorra kentzen ez den bitartean.'*

*Hirugarrena: Azkenik, jakinarazten dizugu prestazioak itzultzeko prozeduraren barruan **alferreko jakinarazpenen bat hautematen denean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak dagokion kasua aztertzen duela interesdunak helbide-aldaketaren berri eman duen edo ez argitzeko. Jakinarazpen hori egin zela eta Lanbidek datu hori ez zuela eguneratu egiaztatzen den kasuetan, prozedura ezeztatu egiten da ofizioz, eta berri bat eskatzen da.**"<sup>1</sup>.*

3.- Lanbideko zuzendari nagusiak, bere erantzunean, diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko edo eteteko ebazpenetan jasotzen diren xedapenei dagokienez une honetan aplikatzen den prozedura bakarrik aipatu zuen. Hori kontuan izanik, Arartekoak beste informazio-eskaera bat igorri zion Lanbideri, eta, han, ebazpen horietan hautemandako gabeziak azpimarratu zituen.

Aurreko urteetako itzultze-prozedurak aipatu ziren bereziki; izan ere, ebazpenetan gehitutako informazioa —erakunde autonomoak bere erantzunean hizpide duena— txertatu aurretik hasitako prozedurei buruzkoak ziren jasotako kexa guztiak.

Gainera, kexagileek emandako informazioa argitzeko eskatu zion Arartekoak Lanbideri; izan ere, pertsona horiek jakinarazi ziguten baietsi egin zela premiamendu-probidentziaren aurka jarri zuten aukerako berraztertze errekurtsoa.

4.- Horri erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiak bidalitako txosten hau jaso dugu:

*"Lanbidek azken helbide ezagunean jakinarazten ditu egintza administratibo guztiak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 42. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz.*

---

<sup>1</sup> Azpimarra Arartekoarena da.



*Horrez gain, elkarreraginkortasun-sistemak sartu ahala, ahalegintzen gara modu telematikoaz egiaztatzen helbidea.*

*Ogasunera premiamendu bidez bidalitako prozedura bat errekurritu daiteke.*

***Errekurtso hori onartzen bada, beste epe bat jarriko da borondatez ordaintzeko, eta ezabatu egingo dira arauak ezartzen dituen errekareruak.***

Honezkero uste dugunez beharrezko egitateak eta zuzenbide-oinarriak ditugula, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

### Gogoetak

1.- Espediente honek bi xede izan ditu. Alde batetik, aztertu da Lanbidek behar bezala jakinarazi ote dituen prestazioen titular izateari utzi dioten pertsonen bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko prozeduraren faseak.

Horretarako, erakunde honi beharrezkoa iruditu zaio alde aurretik zehaztea erakunde horrek nahikoa informazio eman ote dien diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrei, bai enplegu-erakunde autonomoarekiko harreman juridikoa iraungi ondoren espedienteak berrikusteko aukerari buruz, bai etxebizitza-aldaketak jakinarazteko betebeharrari buruz.

Bestalde, prestazioak erreklamatzeko prozeduran egindako aldaketei eta azken urteotako hobekuntza-neurriei dagokienez Lanbidek egindako jarduna aztertu da.

2.- Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko Dekretuak (147/2010, maiatzaren 25ekoa), prestazioak erreklamatzeko prozeduraren jakinarazpena arautzean, hauxe bakarrik ezartzen du: "Prozedura hasitakoan, foru-aldundiak ondokoak jakinaraziko dizkio titularri: prozedurari hasiera eman zaiola, oinarritzat dituen arazoak, izan ditzakeen ondorio ekonomikoak, ebazteko eta jakinarazteko epea, eta 58. artikuluan ezarritako epean berariazko ebazpenik ezaren ondorioak. Interesdunek, hilabeteko gehieneko epean, egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin ahalko dituzte".

Beraz, jakiteko zer legezko prozedurari jarraitu behar zaion jakinarazpenak egiteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea jo behar da. Lege horrek xedatzen du, alde batetik, administrazioak interesdunei jakinarazi behar dizkiela beren eskubide eta interesei eragiten dieten administrazio-



egintzak, eta bestetik, egintza horiek eraginkorrak izan daitezen, jakinarazi egin behar direla (39. eta 40. artikulua).

Bestalde, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen (Gizarteratzeko eta Diru-Sarrerak Bermatzekoa) 24. eta 39. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Lanbidek 4 urteko epean berrius ditzake diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria eteteko zein iraungitzeko ebazpenak.

Xedapen horien ondorioz, baliteke itzultze-prozedura abiaraztea, hain zuzen ere hauteman baldin bada ez direla betetzen diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular izateko baldintzak.

Berrikusteko ahalmen horretan oinarrituta, hilabete batzuk edo are urte batzuk lehenago ere diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izateari utzitako pertsonen prestazioak itzultzeko prozedurak abiarazi eta ebatzi ditu Lanbidek, eta, beraz, askoz ere lehenagoko aldiak berrikusi ditu. Pertsona horiek ez zituzten jakinarazi enplegu-erakunde autonomoarekiko harremana amaitu ondoren izandako etxebizitza-aldaketak.

**3.-** Lehen aipatu dugun Lanbideko zuzendari nagusiaren txostenaren arabera, prestazioen titularren azken helbide ezagunera bidali dira administrazio-egintza horien jakinarazpenak, eta, hortaz, bere iritziz, bete egin da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean (aurrerantzean, 39/2015 Legea) jakinarazpenak paperean egiteari dagokionez ezarritakoa.

Arartekoak aztertu dituen kexa-espedituetan, interesdunek adierazi dute ez zekitela aldaketa horiek jakinarazi behar zituztenik. Gainera, Lanbideko erabiltzaile batzuek diotenez, kasu batzuetan, ahalegindu egin dira etxebizitza-aldaketen berri ematen, baina haien bulegoetan adierazi diete ez zela beharrezkoa, jada ez zirelako ari prestazioak jasotzen.

Esan dugunez, Arartekoaren iritziz, komeni da Lanbidek aurreko urteetan administrazio-egintzetan jasotzen zen informazioari zegokionez izan duen jokabidea azaltzea eta aztertzea; izan ere, esan bezala, aurreko urteetan abiarazitako eta ebatzitako itzultze-prozedurei buruzkoak ziren Arartekoan aurkeztu diren kexak.

Indarrean dagoen araudia aztertuta, ez dugu horren inguruko berariazko xedapenik aurkitu. Pertsona batek diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako



prestazio osagarria jasotzen ari denean, haren helbidean izandako edozein aldaketa jakinarazteko betebeharra duela dio araudiak —betebehar horiek Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 19. artikuluan daude jasota—. Hala ere, enplegu-erakunde autonomoaren eta herritarraren arteko harremana amaitzen denean, ez dago betebehar zertan bete; **izan ere, une horretan araudian jasotako eskubideen titular direnei aplikatu behar zaizkie araudian jasotako betebeharrak.**

Legezko xedapenik ez dagoenez, interesgarria dirudi Lanbidek prestazio ekonomikoen titular izateari utzi dioten pertsonen prestazioak erreklamatzeko orduan jarraitu duen prozeduran sakontzea.

Arartekoaren galderari emandako erantzunean, **zuzendari nagusiaren idazkiak dio prestazioak aldatzeko, eteteko edo iraungitzeko ebazpen guztietan jasotako manuaaren arabera, erakunde horrek egiaztatu egingo duela interesdunak, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izan den denboran, prestazioak bidegabe jaso ote dituen.**

Erakunde horrek Lanbideri adierazi zion ez zekiela zein unetatik aurrera ari zen berriaz jasotzen informazio hori diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko ebazpenetan. Lanbidek ez dio erantzun kontu horri. Hala ere, kexa-espeditenteei erantsitako dokumentazioa aztertu da, eta egiaztatu da 2013. urtearen amaieran eta 2014. urtearen hasieran dagoeneko xedapen hori jasotzen zela prestazioak eteteko edo iraungitzeko ebazpenetan; **“ez berritzeko” espedienteetan, berriz, ez zen informazio hori ageri.**

Bestalde, gure eskaerari erantzunez igorritako txostenean esaten denez, berrikuspen-prozedura baten ondoriozko ebazpen orori **gehitzen zaio eranskin ekonomikoa, eta, han, zehatz adierazten da zein den itzuli beharreko zenbatekoa.**

Kexagileek erakunde honi helarazi dioten informazioaren eta dokumentazioaren (ebazpenak) arabera, prestazioak aldatu, eten edo iraungitzeko ebazpenei **ez zaie eranskin ekonomikorik gehitu 2016a baino lehen.**

Gainera, sistema berri hori ez zen sistematikoki ezarri bulego guztietan, eta aldeak egon ziren batzuen eta besteen artean. Izan ere, esan bezala, eranskin ekonomiko



hori ez zen kasu guztietan gehitu. Arartekoak 2017ko diagnostiko-txostenean<sup>2</sup> aztertu zuen gai hori, eta honako hau adierazi zuen berariaz: *“Zor bat sortu egin dela eta zor hori mantentzeko arrazoiak jakinaraztea arintasunez bete beharko litzatekeen oinarritzko berme bat da. Jakinarazpen horretan, zorra sortzeko arrazoiak jaso beharko lirateke, baita zorraren data eta Lanbidek hori aitortzeko egindako kalkulua ere.”*

Horri dagokionez, Lanbidek berak jakinarazi zion Arartekoari noiz hasi zen itzuli beharreko zenbatekoen inguruko informazio gehiago ematen diru-sarrerak bermatzeko errenta aldatu, eten edo iraungitzeko ebazpenetan; izan ere, Arartekoaren 2015eko abenduaren 22ko Ebazpenean<sup>3</sup>, enplegu-erakunde autonomoak Arartekoari emandako erantzuna jaso zen:

*“Lanbidek itzultze prozeduraren aurreko jakinarazpenik gehiago ez dituela bidaliko adierazi nahi dugu. Hala ere, berrikuspen espedienteari amaiera ematen dion ebazpenarekin batera bidegabe jasotako diru-sarreraren jakinarazpena bidaliko da, interesdunari bere egoeraren berri emanez. Izan ere, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuko 56. artikulua dio aldatzeko, eteteko edo azkentzeko prozedura baten ondorioz sortzen direla bidegabe jasotako kopuruak (BJK), horregatik, **Lanbidek ebazpen horiekin batera bidaliko die herritarrei berrikuspen espediente horretatik sorturiko BJKen inguruko informazioa. Jakinarazpen mota berri hauek 2016ko otsailetik aurrera igorriko dira eta, horietan ez da jasoko borondatezko ordainketa egiteko aukera; soilik beranduago itzultze prozedura martxan jarriko dela azalduko zaio eta, beraz, **Lanbidetik interesdunarekin harremanetan jarriko garela. Komunikazioarekin batera, gainera, bidegabe jasotako kopuru horiek nola eta zein epetan sortu diren azaltzen duen taula txertatuko dugu.”*****

Idatziz jaso berri dugun erantzunean, Lanbidek adierazi zuen bidegabe jasotako prestazioen berri emango zuela prestazioak aldatu, eten edo iraungitzeko ebazpenarekin batera, baina, horrez gain, zehaztu zuen, horren ondoren, prestazioak itzultzeko aparteko prozedura abiaraziko zuela —aditzera ematen denez, aparteko dokumentu baten bidez—. Halaber, **hitzez hitz** adierazi zuen **Lanbidek “2016ko otsailetik aurrera aplikatuko zuela modalitate berri hori”**.

---

<sup>2</sup> Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituena, 2017 izeneko agiriaren 100. orrialdea eta hurrengoak.

Hemen eskuragarri: [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0\\_4199\\_3.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_4199_3.pdf)

<sup>3</sup> Hemen eskuragarri: [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0\\_3854\\_3.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_3854_3.pdf)



Hala eta guztiz ere, espedienteetan, oro har, ez da zorraren xehetasunik eman. Izan ere, Arartekoak, hainbat kexa-espedientetan eta enplegurako erakunde autonomoarekin izandako bileretan, behin eta berriz esan du eranskin ekonomikoa gehitu beharra dagoela.

Hona hemen gogorarazi beharreko datu interesgarri bat: jarduketa hau eragin duten kexa-espedienteek 2016aren aurreko aldiei eragiten diete.

Azkenik, esanguratsua da antzeko egitate batzuei buruzko espediente baten harira (erreferentzia-zenbakia: **1830/2018/QC**) erakunde honek jasotako erantzuna, Lanbideko zuzendari nagusiak honako hau adierazi baitzuen han: *“Lanbidek ahaleginak egin zituen eskura jakinarazteko, ordurako azkenduta zegoen DSBE espedienteetan agertzen zen helbidean. Hain zuzen, bajaran zegoen 2014az geroztik, eta ez zuen helbide berria jakinarazteko betebeharririk. Lanbide, beraz, ez zekien zer helbide zuen jakinarazpenak egin behar zituenean, eta ezagutzen zuen helbide bakarrean jakinarazteko ahaleginak egin zituen”*. Beraz, badirudi nolabaiteko nahasmena zegoela helbide berria jakinarazteko betebeharrari buruz.

Hala eta guztiz ere, ondorio gisa, defentsa-bulego honen iritziz, araudiak ez du xedatzen enplegu-erakunde autonomoarekiko harreman juridikoa amaitu ondoren izandako **etxebizitza-aldaketak jakinarazi behar** direnik, eta Lanbidek, 2016a baino lehen behintzat, ez zuen jarduketa behar bezain bermatzailerik egin betebehari hori gogorarazte aldera.

Arartekoaren iritziz, Lanbidek idatziz eta berariaz jakinarazi behar zien interesdunei helbide-aldaketen berri eman behar zutela, zehatz-mehatz adieraziz 4 urteko epea zegoela espedienteak berrikusteko, eta bazitekeela itzultze-prozedura abiaraztea.

Hori esanda, adierazi beharra dago **gaur egun prestazioak eteteko, iraungitzeko edo ez berritzeko ebazpenetan jasotzen den informazioa askoz argigarriagoa dela**.

Erakunde honek kontsultatu duen informazioaren eta dokumentazioaren arabera, gaur egun, honako xedapen hau ageri da zenbatekoak itzultzeko ebazpenetan: *“Era berean, jakinarazten dizugu, zorra ordaindutat jo arte, jakinarazpenetarako helbidea aldatuz gero, Lanbideri jakinarazi behar diozula”*.

Hortaz, Arartekoak ontzat jotzen du, **gaur egun, prestazioen titularraren eta Lanbideren arteko harremana amaitzen duten ebazpenetan aurreratzea ohiko bizilekuaren aldaketak jakinarazteko betebeharrak** bere horretan dirauela, nahiz eta





prestazioen titular izateari utzi, eta **ohartaraztea balitekeela gerora prestazioak bidegabe jaso direla jotzea.**

Horrez gain, bidegabe jasotako prestazioak direla-eta erreklamatu den zenbateko osoa zehazten ari da Lanbide, eta zenbateko horren jatorriaren berri ematen duen eranskin ekonomikoa jasotzen ari da; beraz, erakunde horren jokabidea bermatzailea izaten ari da.

**4.-** Nabarmenezkoa da, bestalde, Lanbidek haxe adierazi ziola Arartekoari emandako lehen erantzunean: “prestazioak itzultzeko prozeduraren barruan **emaitzarik gabeko jakinarazpenen bat egin dela hautematen baldin bada**, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kasua aztertzen du, interesdunak helbide-aldaketa jakinarazi duen ala ez argitzeko. Egiaztatzen baldin bada interesdunak aldaketa jakinarazi zuela baina Lanbidek ez zuela datu hori eguneratu, **ofizioz deuseztatu ohi da prozedura, eta beste bat abiarazi**”.

Erakunde honen ustez, alderdi horri dagokionez ere behar bezala jokatu du Lanbidek.

**5.-** Azkenik, hasieran adierazi dugunez, Arartekoak hainbat kexa-espeditente jaso ditu, askotariko kasuistikei buruzkoak. Jarduketa honen bidez, elementu komunak aztertu dira. Hala ere, Arartekoak espeditente horiek izapidetzen jarraituko du, berrikusteko dauden alderdiei dagokienez, hala nola interesdunek adierazi baldin badute ez daudela ados ez erreklamazio-prozedurarekin, ez Lanbidek erreklamazioa egiteko orduan oinarritzat hartu dituen arrazoiekin.

Kexa honi lotutako espeditentean jasotako datuak eta igorritako informazioa ikusita, azaldutako gogoetekin bat etorriz, Arartekoak honako ondorio hau atera du:

#### Ondorioa:

Arartekoak erabaki du ofiziozko espeditente hau ixtea, erreklamazio-prozeduran egindako hobekuntzak aztertu eta sail eskudunek betearazpen-bidean abiarazitako prozedurak berrikusi ondoren.